

zuzendariari

(0034) 943 300 222

OHARRA: Ahalik eta iritzi gehienek izan dezaten tokia, ez da komeni makinazko 15 lerro baino luzeago idaztea gutun hauetan. Idatzi duenaren izena, telefonoa, helbidea eta NAren zenbakia agertu beharko dira. Laburtu behar izanez gero, zuzendaritzak bere esku du horretarako eskubidea. Erdaraz iristen diren gutunak ez dira argitaratuko.



zuzendariari@egunkaria.com



Gudarien etorbidea, z/g 20140 Andoain

Gabriel Aresti (1933-75)
oroituzTomas Angel Gonzalez Zabalbeitia •
ABANTO

Idazle horrek, Angel Zelaietaren liburuan (*Gabriel Aresti*) ikus dezakegunez, orain dela zenbait urte ospe handia izan zuen bere ibilbide ezin esanguratsuagotan. Adimen handiko pertsona, langile amorratua, literatura arloan sari askoren irabazle, hitz egiten zuen kontzientziak bere iritzi ausarta beti ematen zuen bizi-tzaren aitzinean eta gatazkaren esparruan, herriaren nahia bere eginez.

Hunkituta eta motibatuta, sentikorra eta kontziente izanik, mintzaira argiz, nortasun zintzoaz, beti iniziatiba handiz, zorrotz eta burutsu, bidean zehar denon laguntzaile eta kolaboratzaile, gartsu eta gogotsu, bere ahaleginak eta abileziak, Euskal Herriaren aldera bildu zituen. Euskaldun eta hezikaitz, denetarik irakurtzen zuen eta bere bizitza erabaki zuen herri honen alde ematea, berak erranda euskarari buruz: «Euskera aldean, armarik eztot artun egingo, egundo nire eskuetan, nire plumea nire izerdia, eskeintzen deusat benetan».

Distira egiten zuen, zintzotasun eta ondradutasun jabe, poesia sozialaren hedaduran izar erakusle handiak, euskal literaturan altxor izugarri ona eta eragin-garria utzi zuen, gaur egun gogora deza-kegunez *Harri eta Herri* aipatzean esaterako. Sortzaile oso kritikatu askotan, bizi zen frankismoaren garai ilunean, batez ere *La Gazeta del Norte*-n eta bestelako hedabideetan, gutxi batzuk bezain ausarta, oso interpretazio pertsonalak egiten zituen, zenbaitek marxistatzat hartu arren, argi geratzen ez dena.

Alderdirik ez zuen, horregatik preseski, maiz alde guztietatik egurra jasotzen zuen. Berak, orde, pentsatzen zuena horixe erakusten eta batuaren sorreran lan eskerga burutu zuen, baten baino gehiagoren esanetan eragilerik gogorre-na.

Noiz eta oraindik oso gaztea eta zere-



galdeiozu...

Zure alderdian bi jarrera sumatzen ditut EHrekin: alde batetik, harekin ez dela inolako akordiorik lortu behar, eta, beste aldetik, lehendakari espainola atera ez dadin EHri esaten zaio Legebiltzarrera joan behar duela zure aldeko boza ematera. Beraz, EHren botoak nahi ditu EAJk? Javier Ortega (Bilbo)

EH ETatik independente izatea eta Legebiltzarrera itzultzea nahi du EAJk; horrela, EHk bide politiko eta demokratikoen bidez defendituko ditu bere ideiak. Bortizkeriari babes politikoa eman gabe defenditu behar ditu ideiak. Euskaldunek ez diogu EHri eskatzen ideiak alboratzeko, aniztasuna errespetatuz defendatzeko baizik. Garbi dago ezin dutela, eta, beraz, nazionalista guztiek jakin behar dute lehendakari izateko hautagai bakarria dagoela gai dena euskara, ikastola eta herri honetako kulturaren alde lan egiteko.

Maiatzaren 8tik aurrera **Estitxu Fernandez • psikologoa** izango da Galdeiozu ataleko gonbidatua. Bidali zure galderak ordurako.

JUAN JOSE
IBARRETXEEAJ-EAko
lehendakariaga

eman ondoren, saiatuko naiz oraingo honetan —ondo hausnartutako botoaren bitartez— lehendakari espainolen amets gaizto hori ekiditen. Aberria mehatxupean dagoenean aurkar politikari opariak egitea astakeria baino okerragoa litzateke: benetako traizioa. Garaiz gaude.

PP eta PSOEren
probintziakeriaRikardo Arregi (*EILASeko kidea*)

Gasteizko Udalak, aurrekontuak egitera-koan, euskaltegiei diru laguntzak kentzea erabaki du. Gauza bera gertatuko da udalekuean. PPK eta PSOEek euskararekin dituzten ardura eta kezka inoiz baino hobeto adierazi dizkigute oraingoan. Euskararen inguruan eta hizkuntza normalizazioaren inguruan esaten ohi dituzten hitz polit guztiak erretorika hutsa direla erakutsi digute gasteiztar guztioi. Eman dituzten arrazoi bideak barregarriak dira eta haien kultura ezaren adibide. Euskaltegiak eta ingelesa irakasten duten eskolak erkatzea, hau da, euskara eta ingelesa erkatzea hemen Gasteizen, erridikulua da. Konparazio horiek agerian uzten dute partidu politik horien probintziakeria eta lerdokeria kulturala.

Askotan entzun dugu euskararen normalizazioa alderdi abertzaleek bahitua dutela, euskara politizatu egin dutela eta abar. PP eta PSOE ez doaz bide onetik egoera hori gainditu nahi badute; aitzitik, politizazioa bilatzen dute auskalo zernolako etekinak ateratzearren. Ahaztu dute euskara guztion dela eta milaka gasteiztarrek erabiltzen dugula egunero hirian bertan, lanean, eskolan eta aisialdian.

Fraga jaunak, PPren fundatzaileak, esan berri du euskarak museoetan egon behar duela. Zaila izango du Alonso alkate jaunak museo bat eraikitzea Gasteizko euskaldunak eta euskara ikasi nahi dutenak bertan sartzeko. Benetako momientzat izan beharko luke museoak.

gin handia egin zezakeenean, tamalez, denon etsaia den heriotzak, gaixotasun madarikatu baten bitartez, harrapatu zuen, gehienbat ezagutu zutenen artean umezurtz asko utziz, guk berriro berreskura dezakeguna, bere lekukotasuna behin eta berriro kontuan hartuz eta baietsiz.

Garaiz gaude

Mikel Alberro • DONOSTIA

Euskal Herriko mendebaldean hauteskunde erabakigarrien aurrean gaude. Une historiko honetan inoiz baino harroago agertzen zaigu nazionalismo espainiarra, eta Estatuak dituen tresna mediatiko guztiak erabiltuta, lehendakari espainol baten hipotesia —duela gutxi

zientzia-fikzioa zirudiena— errealtate gordina bihur liteke laster. Mehatxu horri aurre egiteko abertzaleon batasuna ezinbestekoa suertatzen da, eta bakarrik Gasteizko Parlamentuan abertzaleon botoak batzen badira eragotziko dugu Orejaren garaipena.

Kinka larri honetan, EHko Barrena jaunak arestian esan zuen garbiki ezker abertzaleari bost axola zitzaiola nor izango den Gasteizen hurrengo lehendakari. Astakeria horren aurrean (eta nik esango banu bost axola zaidala Sanz espainiarra Nafarroako presidente izan ala ez?), abertzaleok badakigu antzua dela EHri botoa ematea, haiek ez baitute oztopatuko lehendakari espainol baten izendapena. Oreja edo Ibarretxe, berdin da, sasi-independentista horien iritziz. Nik, hogeituzte ezker independentistari botoa

montxo

